

OSTEGUNA

2021/12/16
9. urtea, 1.523. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €



Biolur elkarteko kideak 'Gure lurriña' kanpaina aurkezten. ENERITZ MAIZ

Nekazaritza biologikoa bultzatzeko, bazkide bila

Gipuzkoan nekazaritza biologikoa sustatzeko sortu zen Biolur elkarteak duela 27 urte; 'Gure lurriña' lelopean bazkide berriak lortzeko kanpaina jarri dute martxan, elkarteak indartu eta ezagutarazteko helburuarekin // 5

Energia Bulegoa jarri dute herritarren eskura

Bulego birtualak energiari buruzko arreta pertsonalizatua emango die herritarrei // 2

Hilekoa osasuntsu bizitzeko kanpaina abian, Anoetan

300 kopa, 30 kulero eta 50 konpresa berrerabilgarri banatuko dituzte // 4

«Baserritarrok gizartetik gero eta urrunago gaudela uste dut»

JOSEBA OTEGI
ARTZAINA

Goine esnekiak ekoizten ditu asteasuarrak; gaztaren prezioa igo ezean ezingo dutela jarraitu dio // 6

ZOZKETA

Arruti gozotegiaren eskutik Eguberrietako produktuez osatutako otar eder bat zozkatzen dugu.

arruti

Andoain 943 59 37 77

Zozketan parte hartzeko epea
abenduaren 15a, 943 65 56 95 edo
Ataria.eus-en



Ziurtagiria eskatuko dute kultur eta kirol espazio itxietarako

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak esan du COVID ziurtagiria beharko dela Tolosako hainbat eremu itxitara sartzeko. Leidor aretoan, kultur etxean, liburutegian, musika eskolan, Usabal kiroldegian, Berazubiko barneko kirol instalazioetan, Beotibar frontoian eta Uzturpeko kirol instalazioan eskatuko dute.

Leidorren egiten diren jarduerak guztietan eskatuko dute ziurtagiria, baina kultur etxearen, liburutegiaren eta musika eskolaren kasuan, ziurtagiria ekitaldietan eskatuko dute. Ziurtagirik ez duten eta kultur jardueretarako sarrerak erosiak dituzten herritarrei dirua itzuliko diete.

Bestalde, COVID ziurtagiria eskuratzeko edota inprimatzeko zailtasunak dituztenek Inmakulada Ikastolan jasoko dute laguntza gaurtik aurrera.

AZOKA BEREZIA, LARUNBATEAN

Gabonetako azoka berezia Plaza Zaharrean eta Alondegia plazan egingo dute aurten. Beste urteetan baino postu gutxiago egongo dira, jende pilaketak ekiditeko. Modu honetara, larunbatetako azokari ere leku berezia emango diote. Azoka bereziari lotuta, Plaza Zaharrean 8 postu egongo dira eta Alondegian 26 postu. Postu denak elikagaien inguruko postuak izango dira.

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

Martxan da Tolosaldeko Energia Bulegoa

Herritarrei energia alorreko arreta pertsonalizatua emateko, bulego birtuala jarri dute martxan; argibideak emateaz gain, doako online aholkularitza eskaintzen du

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Tolosaldeko Energia Estrategiaren barruan, kultura energetiko berria sortu asmoz, lanean jarraitzen du Tolosaldea Garatzen garapen agentziak. Horregatik, eskualdeko udalekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuarekin elkarlanean, energiari buruzko informazioa eman, eraldaketarako sensibilizatu eta formazioa sustatzeko, Tolosaldeko Energia Bulegoa jarri du martxan.

Ingurumen departamentuak eta garapen agentziak, eskualdeko energia-plana bultzatzeko sinatu duten hitzarmenaren barruan kokatzen da proiektua. Energia-pobreziari aurre egin eta Tolosaldean energia-eredu jasangarria sustatzea du helburu, eta bi lan-ildo nagusi izango ditu: energia-pobreziaren murrizketa edota prebentzioa eta energia kontsumoaren optimizazioa. Horretarako, 50.000 euroko diru laguntza eman dio aldundiak Tolosaldea Garatzeni.

Koordinatutako eragile guztien ekimenek, «Gipuzkoan energia-eredu berri baterako bidea egitea» ahalbidetuko dutela azpimarratu du Jose Ignacio Asensio Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatuak. «Funtsezkoa da uneoro erabakirik egokienak hartzen laguntzeko prest dauden herritarrek ahalbidetzea, horiek izango baitira lurraldeko energia-trantsizioa ahalbidetuko dutenak».

Asensio «ezinbestekotzat» jo du bulego birtuala, «gertuko in-



Jose Ignacio Asensio ingurumen diputatua eta Iker Urruzola Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria, aurkezpenean. J.A.

formazioa» ematen duelako. «Gai konplexua da energiarena, askotan heltzen zaizkigun ordainagiriak ere ez ditugu ulertzen, eta beraz, beharrezkoa da laguntza eskaintzea», gaineratu du.

ZERBITZUA, LAU ESPARRUTAN

Bulego birtualaren sorrera beste urrats bat izango dela aurreratu dute. Herritarrei eta eskualdeko saltokiei dago zuzenduta. Hasiera batean, urtarrila amaitu arte egongo da martxan, eta jasotako erantzunen arabera, urte berrian jarraipena izatea aztertuko dute. Energia alorreko informazio erabilgarria emango du webguneak.

Nagusiki, lau esparrutan banatuko da zerbitzua. Batetik, argindarraren ordainagirian eta

horren analisisan sartutako kontzeptuak ulertzen laguntzeko, doako aholkularitza zerbitzu bat eskainiko da. «Azterketa pertsonalizatua izango da, dauden tarifei buruzko informazioa emango da, eta egokiena zein den aholkatuko da, gastu elektrikoa murriztera bideratzeko», esan du Iker Urruzola Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak.

Bestetik, energia-konpainiekin eta administrazioarekin laguntzak, isunak eta kudeaketak izapidetzen lagunduko dute. Horrez gain, partikularrei eta bizilagun komunitateei energia berriztagarriak instalatzeko proiektuei buruzko aholkularitza zerbitzua eskainiko dute, esparru horretan lan egiten duten

eragileekin koordinazioan. Azkenik, energia-kontsumoaren ohiturak hobetzeko jarraibideak emango dituzte, eta formazio-ekintzak eta kontzientziazio-kanpainak martxan jartzeko ere aholkularitza pertsonalizatua emango da.

Zalantzak argitzeko eta trantsizioa gauzatzen laguntzeko, *Tolosaldeagaratzen.eus* webgunea bisitatu dezakete herritarrek. Bertan aurkituko dute energia bulegoari buruzko web-orria. Arreta pertsonalizatua nahi izanez gero, *tolosaldekoenergiabulegoa@gmail.com* helbidera idatzi behar dute. Gaian aditua den teknikari batek erantzungo ditu herritarren galderak.



1 BBK Karpin Abentura FAUNAREN BABES ZENTRUA

Lagun birentzako bina sarrera



Karrantza
infokarpin@gmail.com
626 622 245

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 EMARIAK LIBURUA

Hiru ale



943-844 432 •
kalaka@kalaka.eus
www.kalaka.eus/denda/

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52

kalaka

Pilota partidekin emango diote hasiera Zizurkilgo Kirol Asteari

Zizurkilgo Udalak herriko eragileekin batera Kirol Astea antolatu du; gaurtik hasi eta igandera bitarte luzatuko da

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Udalak Kirol Astea antolatu du. Gaur hasi eta igandera bitarte kirol ezberdinak ikusi eta praktikan jartzeko aukera izango dute zizurkildarrek. Gaur, pilota izango da protagonista, eta Ziotzako pilota eskolako haurrek jokatuko dituzte partidak.

Bihar, Iker Karrera eta Unai Ugartemendiaren bisita jasoko dute, eta *Bidea Ipar* liburua aurkeztuko dute. Larunbatean, berriz, 12 orduz kirolean eguna izango dute.

KORRIKA ETA BIZIKLETAN

Larunbatean egingo dute Zizurkilgo XXIV. Gau Krosa, 22:30ean hasita, eta ordu erdi lehenago, Haurren Gau Krosa izango da. Osasun egoera dela eta, aurretik eman behar da izena, eta gehieenez ere 150 korrikalarik parte hartuko dute. Izen ematea hiru euro ordaindu beharko da, eta *Herrikrosa.eus* web orrian edo Zizurkilgo Udal bulegoetan egin beharko da.

2005. urtearen aurretik jaiotakoek zazpi kilometro egin beharko dituzte; 2006-2008 artean jaiotakoek 2,5 kilometro; 2009. urtearen ondoren jaiotakoek aldiz, kilometro bat egin beharko dute; lehenengo 850 metroak kontrolpean eta azken 150 metroak libre.



2019an Zizurkilen egin zen Kirol Asteako une bat. I.G.L.

ZIZURKILGO KIROL ASTEA

Gaur, hilak 16

17:00. Ziotza Pilota eskolako umeen partidak, Intxaur pilotalekuan.

Hilak 17, ostirala

19:00. *Bidea Ipar* liburua aurkeztu, Iker Karrera eta Unai Ugartemendiarekin, balio anitzeko gelan.

Hilak 18, larunbata

12 orduz kirolean Zizurkilen.

11:00. Kirol eta jokoak haurrentzat, Intxaur frontoian ZEKen eskutik.

17:00-19:00. Patinikastaroa Intxaur frontoian, ume, nerabe eta gazteen-tzat.

Danena txirrindularitzak antolatuta, berriz, Bizikleta ibilaldia izango da, igandean. Adinaren arabera banatu dituzte irteerak Joxe Arregi plazatik hasita.

Larraulera Ur Maratik (12km)

22:00. Haurren Gau Krosa.

22:30. Zizurkilgo XXIV. Gau Krosa.

Hilak 19, igandea

Danena taldeko kirolez gozatzeko eguna.

09:30. Danena txirrindularitzak antolatuta. Joxe Arregi plazatik abiatuz, gurasoak ongi-etorriak izango dira.

12:00. Denok Danena Halterofilia txapelketa, plazako estalpean. Danena futbol preferente mailako Danena eta Zumaiaren arteko partida jokatu da.

LH3-4koentzat; LH5-6koentzat, Alkizara (15 km); DBH1 eta 2koek, Larraul eta Alkizara (17 km) eta DBH 3 eta 4koek Andazarratera igo beharko dute (20km).

Amezketako Udalak jaso du euskararen Bikain ziurtagiria



Gasteizen egin zuten ziurtagiri banaketa, asteartean. ATARIA

Erredakzioa Amezketako

Bikain 13, biratu euskara! lelopean egin zuten Bikain euskararen ziurtagiriaren banaketa ekitaldia, asteartean, Gasteizko Europa Jauregian. Tartean, Amezketako Udalak izan zen bere Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren goi maila egiaztatzen duen Bikain ziurtagiria jasotzen.

Guztira hogeita zazpi entitate publikok eta pribatuk jaso zuten ziurtagiria. Horietatik hamabik

goi mailako urrezko Bikain egiaztatu dute, hamalauk tartekoa den zilarrezkoa, eta batek oinarritzkoa. Iñigo Urkullu lehendakariak banatu zituen ziurtagiriak Bigen Zupiria sailburuarekin batera.

Hamahiru urteotan euskararen erabilera areagotu nahi izan duten erakunde publikoei eta pribatuei ekarpen kualifikatuak egin dizkie Bikain ziurtagiriak, eta euskararen normalizazioan egindako lana aitortzen die.

Abenduko kantu jira ez dute egingo larunbatean

TOLOSA // Tolosan kantuak jendea bildu ohi du, eta kaleetan barrena aritzen dira kantuan. Larunbatean, kantu jira egitekoak ziren, baina azken uneko aldaketa dela eta, bertan behera utzi dute, beraz, ez da abenduko Tolosa Kantari egingo.

Alkizako Sormenaren Kabiaren aurkezpene egingo dute bihar

ALKIZA // Alkizako Sormenaren Kabia aurkeztuko dute, 19:00etan, Fagus Alkiza interpretazio zentroan. Ikus-entzuzneko proiektzioaren ostean, Ione Larrago eta Joseba Agirrezabalaga irabazleekin solasaldia izango da.

Hilberriak eta urteurrenak

atariAn jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK
ataria@ataria.eus •
Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera
18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte
hartzen ditugu



Pio Ermina San Sebastian

- Goian Bego -

*Mendian gora eta behera
ibiliaz basoetan
perretxiku, ontto eta xixe horik
ekariez saskietan
horrela gogoratuko zaitugu
beti gure bihotzetan.*

Zure Ilobak

AMEZKETA, 2021eko abenduaren 16an



Pio Ermina San Sebastian

Abenduaren 15ean hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -

Emaztea: Joxepa Mujika; seme-alabak: Nekane eta Bixente Galarza, Mari eta Iosu Manzisidor, Joxe Miel eta Garbiñe Goñi, Edurne eta Angel Oruesagasti, Maria Vitoria eta Joxe Mari Alkain; bilobak: Aitor, Xabat eta Oihane, Xuban eta Amaia, Irantzu eta Erik, June, Mikel, Manex, Inko, Aratz, Garazi; birbilobak: Ekaitz, Xune, Ixale, Hegoa; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde, otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela, OSTEGUNA arratsaldeko ZAZPIETAN, Amezketako SAN BARTOLOME parrokan, izango den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

AMEZKETA, 2021eko abenduaren 16an
OHARRA: Gorputz beila Tolosako ORIA BEILATOKIAN eogngo da, OSTEGUNA goizeko 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 18:00etara.

Hileko osasuntsuaren aldeko kanpaina abiatu dute Anoetan

300 kopa, 30 kulero eta 50 konpresa berrerabilgarri banatuko ditu udalak doan larunbatean herriko plazan; «alternatibak» landu nahi ditu egitasmo honekin

Jon Miranda Anoeta

Anoetako Udalak hilekoa osasuntsu bizitzeko proiektua jarri du abian. Iaz hasi zen udala egitasmoa lantzen eta aurtengo aurrekontuan 12.000 euroko partida gorde du. Horietatik, 7.500 euro inguru erabili ditu kanpaina gauzatzeko. Besteak beste, 300 kopa banatuko ditu doan hilekoa duten herritarren artean, baita 30 kulero eta 50 konpresa berrerabilgarri ere. Larunbatean 12:00etatik 13:30era egingo dute banaketa Anoetako plazan.

Saioa Tolosa Parekidetasun zinegotziak «berritzailetzat» jo du ekimena: «Gizarteko ia gorputzen erdiek hilekoa izanagatik ere ezkutuko errealitatea da, hainbatean tabu izateraino. Errealitate hau ezagutzea, zenbakitara ekartzea eta errealitateari buelta emateko alternatibak lantzea da kanpainaren helburua». Tolosak azpimarratu du gai honen lanketak udal politiketan parekidetasuna zeharkakotasunez lantzeko aukera eman diela. «2011. urtetik jasotzen dugu aholkularitza Berdin bideanetik, eta politika feministak garatzeko barne mailako nahiz herritarrekin egindako beste hainbat formakuntza ekimenean parte hartu dugu».



Liburutegian aurkeztu dute kanpaina udal ordezkariak, herritarrekin batera. J.M.

Parekidetasun eta Ingurumen sailetatik gorputzen osasunaren arteko lotura landu dute. Erabili eta botatzeko hilekorako produktuek ingurumenean duten inpaktaren berri eman du Maddi Sarasola Ingurumen teknikariak, baita produktu hauek pertsonen osasunean duten ondorioaren berri ere: «Erabili eta botatzeko produktuekin bakoitzak hilean 6 kilo hondakin sortzen dugu, munduko hondakinen %0,5. Ekimen honen bidez Zero Zabor filosofian sakondu eta ekonomia zirkularra praktikara ekartzeko aukera dugu».

Gizarte sailetik menstruazioarekin loturiko pobrezia lantzeko aukera izan dutela aipatu du Sarasolak. «Ohartu gara elikagai bankuan umeentzako pixoihalak banatzen badira ere, ez dela hilekoarentzako produkturik banatzen. Kanpaina honek aukera ematen digu horri buelta emateko, eta justizia sozialaren bidean berrerabiltzeko produktuak gutzior eskura jartzeko». Hirigintza sailarekin elkarlanean, komun bakoitzaren ondoan mangertxo bat jarri zutela ere aipatu dute teknikariak, herriko plazako komun publikoak berriro zitu ztenen.

abenduaren 28an egingo diren hiru tailerrak dinamizatzeko. Hilekorako produktu alternatiboak ezagutarazi eta nola erabili behar diren azaltzeko saioak izango dira. Saiotako bat, Gaztelekuan egingo dute bertako erabiltzaileentzat, gaian sakontzen jarrai dezaten. Larunbatean, banaketa egiten den unean egongo da aukera tailerretan izen emateko. Liburutegian hainbat datu eta irudi biltzen dituen erakusketa zabaldu dute eta urtarilaren 14ra arte izango da ikusgai. Gainera, hilekoarekin lotutako hainbat liburu eskuratu dituzte liburutegian eta egunotan herritarrek erakusketa bisitatzearekin batera hartu ahal izango dituzte maileguan.

«Ahalegindu gara banatuko diren produktuen ingurumen irizpideak ahalik eta justuenak izan zitezten. Banatuko diren kopak Bilbon ekoiztiak dira, osasunarentzat egokiak diren silikonarekin eginak, ia artisau eran; eta kopa bakoitzaren energia ekoizpena 0,8 Kw/h-koa izan da. Bestalde, kuleroak Bartzelonan egin da daude kotoi organikoarekin eta konpresak, berriz, Asturiasen», aipatu du Sotok. Gaineratu du, konpresek 4 urteko iraupena dutela, kopek 10 urtekoa, eta kuleroek, berriz, 60 garbaldi izan ditzaketela.

Anoetako plazan etzi egingo dute produktuen banaketa doan. Lehentasuna hilekorako kopei emango diete eta pertsona bakoitzak gehienez beste pertsona batenentzat ere hartzeko aukera izango du.

BANAKETA LARUNBATEAN

Ekimen hau aurrera ateratzeko Marigorri eta Menstrualmente Hablando elkarten laguntza izan dutela aipatu du Tere Soto Kultura teknikariak. Eurak arduratu dira abenduaren 23an eta

GUTUNA

Erraustegia Tolosan eta udalak erabakimenik ez?

Mila bederatziehun eta laurogeita hamarren onartutako Lurralde Antolamenduaren Legeak zehaztu zituen Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta udalei zegozkien eskumenak. Orain, orde, udalen eskumenei eragingo dien Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektuari zuzenketa bat proposatu diote EAJ-k eta PSE-k legebiltzarrean. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzak proiektuak udalerriei inposatzeko aukera izango du aurrerantzean, Interes Publiko Gorenko Proiektuak direra argudiatuz gero.

Modu honetara, Eusko Jaurlaritzak Interes Gorenko eta Ingurumenaren babeserako proiektu moduan izendatuko balu paperhondakinen kudeaketarako birbalarazio planta bat esaterako, eta Tolosan jarri nahiko balu, Tolosako Udalak eta herritarrok ezingo genuke ezer egin, nahiz eta proiektua udalerraren hirigintza antolamendurako arautegiaren kontra egon. Imajinatu dezakegu Zubietan martxan den erraustegia Tolosan jartzeko proiektua egotea, eta udalak erabakimenik ez izatea?

Ingurumen Administrazioaren Legeak udalen autonomia urratzeaz gain, non gelditzen dira instituzioen arteko eskumenak eta errespetua, non elkarlana eta kobernantza? Azken udalbatzan Interes Publiko Gorenko Proiektuen figura sortzearen aurka aurkeztu genuen mozioari ezezko irmoa eman zioten Tolosako EAJ-k eta PSE-k, jakinda hori Tolosaren autonomiarentzat kaltegarria dela eta gure toki-demokrazia urratzen duela.

Krisi klimatikoari aurre egiteko erronka oso handiak izango ditugu datozen urteotan. EH Bildutik, inongo zalantzarik gabe, hirigintza planifikazioan ingurumenari kalterik egin gabe garatzeko arauak ezartzea babesten dugu. Baina horretarako, adostasunaren aldeko hautua da bidea, erakunde ezberdinen artekoa, eta hiritar zein eragileen parte hartzea lehenetsiz. Beste erakundeekin elkarlana eta akordioak erdiesteko borondatearekin egin behar dugu lan, bai, baina tolosarron ordezkari garen heinean, gure herritarren eskubide eta erabakien defentsa eginez, alderdien interesen gainetik.

Andu Martínez de Rituerto Arregi

Tolosako EH Bildu



zozketak

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

Acunsa Gipuzkoa - Movistar Estudiantes

partida ikusteko
Abenduak 22, 20:00etan,
Donostia Arenan.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Biolur elkarteak agroekologia bultzatzeko bazkide bila

Nekazaritza biologikoa bultzatzeko sortua den Biolur elkarteak bazkide izango diren ekoizle eta herritarrak lortu nahi ditu 'Gure lurriña' kanpainarekin

Eneritz Maiz Etxarri

Nekazari talde batek duela 27 urte sortu zuen Biolur elkarteak Gipuzkoan nekazaritza biologikoa bultzatzeko. «Hasieratik, ekoizle asko ez ginen elkartean, eta beharrezkoa ikusten zen teknikarien eta herritarren parte hartzea», kontatu du Gregorio Zuaznabar anoetar ekoizleak. Elkartearen sorreratik dagoen baserritarra da, eta orain, *Gure lurriña* kanpaina martxan jarri dute bazkide berriak lortzeko helburuarekin. Ekoizleak eta herritarrak nahi dituzte.

Gaur egun Biolurren ekoizleak daude, hau da, abeltzainak, nekazariak eta okinak. Horiez gain, hiru teknikariak eta herritarrek osatzen dute elkarteak. «Herritarrek, azken batean guk egiten dugun lana eta ekoizpen sistema alternatiboa babesten dituzte», dio Izaro Zubiria teknikariak. Ekoizpen ekologikoa edo agroekologia sustatzeko elkarteak dela azaldu du: «Maila guztietan, herritarren mailan, tekniko mailan eta ekoizle mailan».

«Ekoizpen ekologikoa gero eta gehiago garatzen ari da, eta gero eta ustialeku gehiago pasatzen

ari dira», zehaztu du teknikariak, eta garbi du: «Etorkizuna ekoizpen ekologikoan dago». Arrazoi ezberdinak aipatu ditu Zubiriak: «Herritarrak eta kontsumitzaileak kontzientziatuago daude, Europatik datozen laguntzak horretara bideratzen dute, osasuna bera ere jada eskatzen ari zaigula uste dut, eta natura bera ere ate joka dago». Gauzak aldatu egin behar direla, eta beste era batera egin beharra daudela uste du Zubiriak.

Gure lurriña kanpainarekin elkarteak indartzea lortu nahi dute. «Elkarteak indartzearekin batera guk babesten ditugun eredu horiek indartzea nahi dugu, eta gure ideologia eta gure lan egiteko modua», azaldu du teknikariak. Biolur elkarteak elkarrekintza bilatzen du, hau da, baserritarren arteko harremanak sustatu eta elkarri laguntzea nahi dute. «Askotan sektore ho-

BAZKIDE EGITEKO BIDEAK

Biolur

Telefona. 943761447.

Webgunea. *Biolur.eus*-en sartu eta biolurkide izateko orriabete beharko da.

netan lan egiten dutenak edo baserritarrak bakarrik sentitzen dira. Norberak bere bidea egin du», argitu du. Biolur elkarteak hori «elkarrekintza eta elkarri laguntzea» sustatu nahi ditu.

BAZKIDE IZATEA BAINO GEHIAGO

Bazkide denak urteroko kuota bat ordainduko du. Baina hortik harago joan nahi dute, eta bazkideak parte hartzaile izatera animatu nahi dituzte, «aktiboak» izatea nahi dute. Herritar moduan bada ere, «behar ditugu, gure eredu eta guk egiten dugun lana babesteko», diote. Ekoizleen, kasuan, berriz, «beste baserritar batzuei laguntzeko, edo jende gazteari laguntzeko».

Zuaznabarrek gehitu duenez, «elkarte txikia izanik, denok batzeak, aukera ematen digu ekoizpen ekologikoan edo biologikoan gabiltzanok jende artean gehiago zabaltzeko. Beharrezkoa dugu, eta agian Biolur bezala gehiago landu behar dugu bazkideen tokia».

Azken batean, elkarteak ezagutzera eman nahi dute, eta azpimarratu dute: «Kontsumitzaileei interesatzen zaie ekoizpen ekologikoa sustatzea, azkenean elikagai hobeak izango dituztelako eta erosteko aukera izango dute-lako».



'Gure lurriña' kanpainarekin Biolur elkarteak kideek elkarteak handitu nahi dute. E. MAIZ

BIOLURREKO KIDEAK



MIRIAM SALDIAS BERROBI

Biolurren hasi berriak gara. Osaba aspalditik izan da kide, eta guk ez dugu zalantzarik izan jarraitzeko. Bertako kide gara aholkularitza jaso eta norbaiten beharra beti dagoelako. Urtero-urtero gauza berriak pasatzen dira baratzetan, eta norbait edukitzea zalantza galdetzeko ondo etortzen zaigu. Deitu eta segituan argitzen digute, bertara etortzen dira. Segurtasuna ematen digu.

Elkarte baten kide izateak sare bat sortzen du. Herritar batek pentsatu «dezake zertarako izango naiz kide?», baina berak zer behar-lukeen edo zer gustatuko litzaikeen esaten baldin badigu, oso ondo etorriko litzaike. Agian guk egitea posible dugu. Gertutik ikusi dezakete guk nola lan egiten dugun, eta konfiantza osoa eduki dezakete erosten duten produktuan, azkenean, bertakoa eta ahalik eta era onenean egindakoa delako.



ENEKO IMAZ AMIANO ELDUAIN

Biolur baratzarekin hasi nintzenen ezagutu nuen. Babesa bilatzea izan zen. Nik baratzeko konturik asko-askorik ez nekien, eta babesa bilatu nuen. Laguntza. Laguntza teknikoak, edozein arazo, galdera, kezka daukazunean hor jende bat dago, eta beste Biolurkide batzuk daude, beste ekoizle batzuk eta horrekin nolabaiteko sare bat osatzen duzu.

Maila orokorrago batean, eta gizarteari begira bere funtzioa egiten duela iruditzen zait. Ekoizpen ekologikoa bultzatuta horrek gizarteari ekarpena egiten dio. Gizarte aldetik, uste dut gauzak pixka bat aldatzen ari direla. Nahi baino gutxiago edo mantsoago, baina aldatzen ari dira. Aldatzea beste erremediorik ez daukagu. Alde horretatik ekarpena egiten du Biolurrek. Guri lagunduz, nekazaritzak aurrera egin dezan, eta beharbada gizarteari ekarpen zuzenagoa eginez.



PROBA EZAZU KORTEKO

TURROI

TRADIZIONALAK

RAFA GORROTXATEGIEN ERARA EGINDA

943 89 03 06 | www.rafagorrotxategi.eus



Tolosan salgai:

Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Denda:
Korreo Kalea, 17
(Malumbres jostun denda)



Maria Jesus Hidalgo eta Joseba Otegi 2006 urteaz geroztik ari dira ardiekin lanean eta esnekiak ekoizten. E. MAIZ

«Gaztaren prezioa igo beharra dago, bestela ezin dugu aurrera segi»

JOSEBA OTEGI ARTZAINA

Joseba Otegi asteasuarrak behiak kendu eta ardiak jarri zituen 2006. urtean; Maria Jesus Hidalgo emaztearekin batera, Goine esnekiak ekoizten ditu, eta kezkatu dago baserriar eta kaletarren artean sortu den distantziarekin

Eneritz Maiz Etxarri Asteasu

ATARIA Irratiko *Baserritik* saio-ko protagonista izan da Joseba Otegi artzaina. Asteasun bizi da Gorua Goiena baserrian, eta 2006az geroztik, behiak kendu, eta ardiekin ari da Maria Jesus Hidalgo emaztearekin. Mota askotako gaztez gain, esnekiak ekoizten dituzte. Sari bat baino gehiago jaso dituzte eta horrek indarra ematen badie ere, «etorkizun txarra» ikusten du.

Baserrian jaio zinen?

Ez. Gurasoek aurrena denda bat izan zuten, eta gerora taberna izan dute eta horrekin jarraitzen du familiak. Ni ordea, zortzi-bederatzi urterekin osaba eta izebarengana etortzen hasi nintzen Gorua Goiena baserrira. Aita da hemengoa, eta hortik nekazari-tza ikasketak egin nituen, eta horrela geratu nintzen hemen.

Orduan, ume garaian gustua hartu zenion baserriari.

Bai. Udan beti etortzen ginen

anaia eta biok, eta beti tira izan dit animaliekin-eta baserrian lanean aritzeak. Taberna behin ere ez zait gustatu. Batik bat behiak gustatzen zaizkit, eta baratzean etxerako zerbait egiten dugu, baina ez zait asko gustatzen.

Nola gogoratzen duzu zure ume garaiko baserria?

Oraingo baserrietatik oso ezberdina. Garai hartan, oiloak, untxiak, txerriren bat, bi edo hiru ahuntz, eta zortzi edo bederatzi behi ziren. Osaba lanera joaten zen, baina horrekin bizitzen ziren. Inguruko baserriak ere horrela ziren, eta orduz geroztik buelta handia eman du.

Ikasketak aukeratzera koan garbi izan zenuen lehen sektoretik jarraitu nahi zenuela.

Asteasuko ikasketak amaitu, eta Fraisoron beste bi urte egin nituen. Lagun batzuk Iruñera joan ziren, baina nik ez nuen aukerarik izan, hamasei urterekin baserrian geratu nintzen, eta harrez gero hemen nabil.

Lehen urte haietan zerekin hasi zinen?

Hasieran zortzi-bederatzi behi zeuden, eta etxean jarri nintze-nean ukuilua pixka bat hazi genuen, eta esango nuke hemezor-

tzi behi jarri genituela. Gerora, 30 bat urterekin, ukuilua handitu genuen eta 80-100 behietaraino iritsi ginen. 2006an, aldaketa egin genuen ardietara.

Zer dela eta ardiak?

Esan bezala behiekin ari ginen, eta gero auzoan ere beste bi ukuilua handi daude. 2006rako gauzak estutzen ari ziren. Batetik kuotak direla, bestetik kostuak ere asko igotzen, eta batik bat arazo handia geneukan simaurra edo pixarekin. Ez genekien zer egin. Asteasun baserri guztietan zegoen ganadu asko. Orain gutxiago entzuten da, baina zoritxarrez Asteasuk bolara batean ez zuen fama oso ona eduki. Zisterna bat mugitzen genuen aldiro, batean guarda, bestean ertzainak edo auzokoak, eta denak haserre. Lanean aritu behar eta guztiekin haserre ibiltzeko, ez du konturik eta orduan aldaketa egin genuen.

2006an bikotea eta biok heldu zenioten baserriari.

Bai. 2006an ezkondu ginen, eta hasiera batean 20-30 behietara jaitsi eta esnea elaboratzen has-tea pentsatu genuen. Garai hartan esne kuotak zeuden, eta dena saldu edo ekoiztu beharra zegoen, eta behiak kendu eta ardiak jarri eta gazta ekoizten has-tea erabaki genuen.

Erraza izan zen erabaki hori hartzea?

Ez. Oso zaila. Hasieran esan dudan moduan, niri beti behiak gustatu izan zaizkit, eta pena handia hartu nuen.

Ardiak jarri, gazta egiten hasi... Bietan aritu behar izaten duzu?

Bietatik egin behar izaten dut. Ukuiluan lan handia dago, eta gaztandegian ere bai. Ukuiluan lan gehiago dagoela esango nuke, baina ateratzen dugun diru apurra gaztarekin irabazten dugu. Beraz, gaztandegiko lanak ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara. Mutil bat ere badugu ukuiluan, eta ukuiluan orain dugu lanik gehiena. Martxoa bitartean, arkumeak jaiotzen ari direnean ukuiluan ordu asko egin behar izaten dira. Gero uda garaian, ordea, behiekiko ezberdina da, eta arkumeak kendutakoan lasaiago ibiltzen gara. Eta gaztandegian jarraitu behar izaten dugu.

Zer eskatzen du gazta egiteak?

Mimo handia eskatzen du, eta garbitasun handia ere bai. Gauzak oso garbi eta ondo erabili behar dituzu. Niri gustatzen zait gaztak egitea, baina jendeak uste duen bezain erraza ez da. Eta ordu asko eskatzen ditu.

Lotura du?

Bai. Ukuilua baino libreagoa da, baina gaztari ere egunero jarraitu behar zaio.

Gazta ezberdinak ere egiten dituzue?

Bai, baina %85 edo gehiago Idiazabalgo gazta egiten dugu. Eta hasiera-hasieratik mamia, jogurtak eta gazta freskoa ere egite ditugu.

Gazta berdinak egitea ezinezkoa, ezta?

Nik behintzat ez dut lortzen. Egun berekoak ezberdinak ateratzen zaizkit! Berdina egitea oso zaila da. Gazta aldatu egiten da; martxo aldekoa eta uda-udako gazta ez dira berdinak. Eta atsedenenaren ostean, berriz, gaztak egiten hastean ere beti izaten dut urduritasuna.

Zein garai duzu gustukoago?

Arkume garaia oso gogorra da eta ordu asko eskatzen du, baina polita da. Gustukoena udaberri-uda garaia, eta lasaiena artzainontzat udazkena da.

Damurik baduzu hartutako erabakiaz?

Lanarekin estu zabiltzanean, edo eguraldi txarrekin lokatze-tan aztarrika zabiltzanean askotan pentsatu dut zertan nabilen hemen, baina damurik ez daukat.

Bezeroak dira zuen sostengu?

2010az geroztik sariak ia urtero lortu ditugu, eta zerbait ondo egiten dugunaren errekonozimendua bada. Baina errekonozimendurik onena salmentak ondo joatea da; sari asko irabaziagatik, gaztarik ez bagenu salduko, etorkizunik ez dago. Bezeroak, eta behin etorri dena berriz etortzea behar dugu.

Gizarteak baloratzen du baserriarrok egiten duzun lana?

Egongo da baloratzen duen jendea, baina uste dut ez dela errekonozitzen egiten dugun lana. Eta zoritxarrez uste dut errekonozitu beharrean, gero eta okerrago ikusiak gaudela. Baserriarrok gizartetik gero eta urrutiago gaudela sentitzen dut. Asteasun bertan, arkume edo ardi bat ikusi, eta «ze polita!», esango dute, baina aurreragoko gauzarik ez dakite. Gero eta urrutiago gaude.

Bazterrean zaudetela uste duzu?

Orain artean ez dut sentitu, baina orain sentitzen ari naiz baserriarrok gaizki ikusiak gaudela.

Pandemiak eraginik izan du zuenean?

Inoiz baino gehiago saldu dugu, baina ardien jatekoa, argia, gasolioa, kartoia, plastikoa... dena igo da. Ez dakit guzti hori gaztaren prezioan igotzeko gai izango garen. Eta igo beharra dago, bestela ezin dugu aurrera jarraitu.

Harri handien txapelduna larunbatean erabakiko da Asteasun

Erredakzioa Asteasu

Euskal Herriko Harri Handien Harri-jasotze Txapelketa izango da jokoan, larunbatean, Asteasu-ko Usarrabi pilotalekuan. 18:00etan hasiko da jaialdia, eta hiru parte hartzaile izango ditu: Jokin Eizmendi, Jon Unanue Goenatxo III.a eta Iñigo Eizagurre Eiza.

Lau harriekin ariko dira, bakoitzarekin hiru minutuko saioa eginez. 125 kiloko bola, 150 kiloko kubikoa, eta zilindrikoa eta laukizuzena. Harri-jasotzaileak hautatuko du harri zilindrikoaren eta laukizuzenaren pisua, 175 kilokoa edo 200 kilokoa, baina ezin dira biak pisu berekoak izan.

Zizurkilen orain gutxi egin zen Gipuzkoako Harri Handien Harri-jasotze Txapelketa eta orduan Jokin Eizmendi izan zen txapelduna.

170 igerilari inguru elkartuko dira XXI. Paco Sanchez Sarian

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Usabal igerilekuan XXI. Paco Sanchez Saria izango da jokoan larunbat honetan, 15:30etik aurrera. Tolosaldea IKT taldeak antolatzen du eta guztira 170 igerilari inguru izango dira, benjamin eta alebin mailakoak. Tolosaldea IKTko igerilari-eraztutzaileak, Azpeitia, Zarautz, Hernani, Lasarte eta Donostiako Fortuna taldekoak izango dira lehian.

Bi txandatan lehiatuko dira igerilariak, eta antzeko proba izango du bakoitzak. Txikienak hasiko dira lehendabizi, eta 50 metroko probetan parte hartuko dute, igerilari bakoitzak aukeratu duen estiloan. Ondoren, handienek parte hartuko dute, eta hauek 100 metroko probak izango dituzte. Azkeneko saria orain bi urte egin zen, eta orduan 300 igerilari-eraztutzaile gora izan ziren Usabal igerilekuan.

Denboraldiko helburuak lortzeko bide onetik doaz

Areto futboleko Laskorain eta Tolosala taldeak gizona zkoen Hirugarren Mailan ari dira; asteburuan izan zuten lehen derbia eta Laskorainek irabazi zuen

Imanol Garcia Landa Tolosa

Areto futboleko Tolosako gizona zkoen bi talde nagusiak maila berean daude lehenengo aldiz. Laskorain eta Tolosala Hirugarren Mailan ari dira, eta pasa den asteburuan izan zuten lehen derbia, Usabalen, Laskorainen etxean. Hain justu, etxekoek eraman zituzten hiru puntuak, 4-2 irabaziz. Bi taldeak orokorrean gustura daude ligan egiten ari diren ibilbidearekin eta talde bakoitzak espero du bere helburuak bete ahaliko dituela.

Derbia lehiatua izan zen. «Emaizta aldetik oso gustura gaude, bagenekielako derbiek bere tranpa izaten dutela», esan du Mikel Juaristi Laskorain taldeko jokalaria. «Tolosalak gure kontra jokatzeko sekulako motibazioa zuen, eta guk intentsitate puntu hori berdindu behar genuen. Azken minutura arte gol bateko distantzia egon ziren. Beraz, azkenean emaitza oso ona izan zen, guk akats batzuk izan genituen, baina orokorrean zaleentzako ere interesgarria izan zen ikusteko».

Mikel Alonso Tolosalako kapitainak azaldu duenez, «ilusio handiarekin joan ginen Usabale-
ra, eta galtzeagatik pena badugu ere, gustura gaude taldeak aurpegia eman zuelako».

Laskorain 2. B mailatik jaitsi zen aurreko denboraldian, eta aurreko postuetan egoteko talde faboritoetako bat zen. Gaur egun sailkapeneko lehen postuan daude, 29 punturekin. «Ez genuen denboraldia ondo hasi», esan du Juaristik. «Kontuan izan behar da entrenatzaile berria etorri dela, Ibai Valverde, eta bere metodologia aplikatu behar zela. Guk egokitu behar genuen eta bera jokalarietara egokitu». Talde indartsuenetako bat dela argi azaldu diete Laskorainekoek, beraien aurka irabazteko motibazio handia nabaritzen dutelako beste taldeen aldetik.

Taldeko jokalaria ez dira al-



Asteburuan jokatu zuten derbiaren une bat. COGAFS

datu, eta jubeniletatik zenbait igo dira. Sailkapeneko lehen postuan egonik, balantze ona egiten dutela dio Juaristik. «Hori bai, kontuan izan behar da bigarrena bi puntura dagoela eta hirugarrena hiru puntutara, eta liga hain luzea izanik, partida batean huts eginez gero hirugarren postura jaisteko arriskua dugu». Espero zutena baino «zailagoa» izaten ari dela Hirugarren Maila esan du Juaristik, «baina geroz eta hobe gaude, eta konfiantza dugu liga bukatu arte ahalik eta gutxien huts egitean».

Berriro 2. B mailara igo nahi dute Laskorainekoek. Sailkapeneko lehen lau taldeek igoera fasea jokatu dute, eta komeni zaie lehen postuan bukatzea, igoera faseko partidak etxean jokatzeko aukera izango zutelako.

MAILARIEUSTEA

Tolosalak bigarren denboraldia du Hirugarren Mailan. Gaur egun bederatzigarren postuan dago, 17 punturekin. Guztira 17 talde dira beraien ligan, eta azken bi postuan geratzen direnak galduko dute maila, beti ere kontuan hartuta 2. B mailatik jaisten diren EAEko talde kopuruak zenbaki hori aldatu dezakeela. Orain arteko balantzea «oso ona» dela dio Alonsok. «Kontuan izan behar da aurreko denboraldia oso zaila izan zela. Igo berriak gi-

nen, eta pandemia dela eta oso berezia izan zen denboraldia, batez ere hasieran. Gainera, eskarmentu handiko taldeak genituen aurrean, eta nahiz eta guk hobeto jokatu, ez genituen emaitza onak izaten, eta aldapa gora jarri zen denboraldia».

Bigarren denboraldia joko aldetik hobe izaten ari dela dio Alonsok: «Jokari batzuk utzi egin dute, eta beste batzuk sartu dira, eta dena hartu behar da kontuan: entrenatzailearen lana, jokarien konpromisoa, eta gauzak ondo eginez gero emaitzak etortzen direla».

Helburu argia maila mantentzea dela esan du Tolosalako kapitainak: «Gure bigarren urtea izanik, eta aurreko denboraldian azkeneko unean salbatu ginela ikusita, gure lehenengo helburua salbatzea da. Gero, jokalariek eskarmentua hartzea, eta pixkana Hirugarren Maila honetan lekua hartzen joatea». Geroz eta gehiago jokatu maila horretan, jokari gazteak eskarmentua gehitzen dutela nabarmendu du Alonsok, eta hain berriak ez direnek beraien berezko eskarmentua jartzen dutela.

Asteburu honetan izango dute hurrengo jardunaldia bi taldeek, eta ondoren bi asteko atsedena izango dute. Asteburuan hiru puntuak lortzea garrantzitsua izango da urte berriari ekiteko.

Hurrengo partidari begira



Aulkitik

Irati Zabala

Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Argi geratu zen zergatik diren liderrak. Hasieran gogotsu hasi ginen partidaren, partida on bat egin eta hiru puntuak etxean geratzeko asmoz. Bagenekien partida zaila izango zela, baina ez ezinezkoa.

Lehen zatia hasi eta berehala beraien gola iritsi zen. Hala ere, aurrera segi genuen, oraindik partida bukatzeko asko falta zela. Atsedenaldiraren aurretik, ordea, beraien bigarren gola iritsi zen.

Atsedenaldiran aldaketak eta sistema aldatu genuen, gauzak hobe joango zirelakoan. Bigarren zatia hasi eta berehala Bizkerreren 3. gola iritsi zen. Handik hamar minutura beste gola heldu zen.

Hala ere, guk bukaeraraino amorerik ez genuen eman eta aukera batzuk ere eduki genituen gola egiteko. Azkeneko, Bizkerreren nagusitasuna argia izan zen eta hiru puntuak Bizkaia aldera joan ziren.

Hurrengo partidari begira jarri behar dugu. Igandean, 16:30ean, Berazubín, Realaren aurka jokatu eta 3 puntuak etxean geratzeko direlako!

BILLABONA FKE	
Arratzain futbol zelaia	
INFANTIL TXIKI MAILA	Larunbata 18, 10:00etan
BILLABONA F.K.E. - EUSKALDUNA S.D.	
ALEBIN NESKAK	Igandea 19, 10:00etan
BILLABONA F.K.E. - TOLOSA C.F.	
ALEBIN PARTEHARTZEA	Igandea 19, 10:00etan
BILLABONA F.K.E. - BEASAIN S.D.	
OHOREZKO KADETE MAILA	Igandea 19, 12:00etan
BILLABONA F.K.E. - HERNANI C.D.	
1. JUBENIL MAILA	Igandea 19, 15:30etan
BILLABONA F.K.E. - SEGURA GOIERRI K.E.	
Billabona Fke	



OSTEGUNA, 2021EKO ABENDUAK 16
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 16

AGENDA

Deialdiak

Altzo. Bideak dokumentala eta solasaldia, Batzarremuñon, 19:00etan.
Lizartza. Energia berriztagarriak zure etxean... posible da!, udaletxean, 18:30ean.
Tolosa. Harkaitz Canoren Intimitate liburua aztertuko dute irakurle taldean, kultur etxean, 19:00etan.
Tolosa. Pintxo tour etxean dokumentala eta solasaldia, Topic-en, 19:00etan.
Zizurkil. Ziotza pilota eskolako umeen partidak, 17:00etan, Intxaur frontoian.

Zinema

Tolosa. La ruleta de la fortuna y la fantasia, filma, 20:30ean, Leido-rran.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Asier Imazek gidatutako magazina: Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, eskualdeko berriak, kolaboratzaileen tarreak...
15:00. Entzuteko Jaioak. Musika.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
20:00. Uzturre blues. Blues musika, Iñigo Martinekin.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
09:30. Gaurkoan Tolosaldeko
15:00. Elkarriketap
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Pintxo-Pote (Hodei Arras-toa)

FARMAZIAK

Gaur

AMASA-VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsua izango dugu gaurkoan ere. Goizeko behe-lainoa altxa ostean, zerua ia erabat urdin agertuko da, nahiz eta, tarteka goi-hodeiren bat ikusi, eta eguraldi eguzkitsuz gozatu ahalko da beste egun batez. Haizeak hego-ekialdetik ahul joko du eta temperatura maximoak ez dira 13-14 gradutik pasako eguneko erdiko orduetan.

Bihar. Eguraldi eguzkitsua izango dugu beste egun batez jarraian. Goizeko behe-lainoa altxa ostean, eguzkia jaun eta jabe izango da eta zerua ia oskarbi agertuko zaigu. Hego-ekialdeko haizea ahul ibiliko da eta temperatura antzeko balioetan mugituko da. Gorenak 13-14 graduren bueltan ibiliko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan- en eta iritzien erantzukizunik

Ataria Bertso Jaialdirako sarrerak salgai daude

Datorren astelehenean eta asteartean Atarikideek erosi ahalko dituzte, eta asteazkenean edonork, 'Ataria'-ren egoitzan



Aurtengo urtarrilean izan zen bertso jaialdiko une bat. IMANOL GARCIA LANDA

Erredakzioa Tolosa

ATARIAK urtero antolatzen duen bertso jaialdiak badu data eta lekua. Urtarrilaren 22an izango da, 18:00etan hasita, eta ohi bezala, Tolosako Leidor aretoan egingo da. Bertarako sarrerak astelehenean aurrera erosi ahal izango dituzte Atarikideek ATARIA-ren egoitzan.

Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal eta Iker Zubeldia izango dira bertsolariak, eta gai jartzaile lanetan, ohi-ko moduan, Amaia Agirre ariko

da. Edukierari dagokionez, momentuko egoera kontuan hartuta, 800 herritar inguruk izango dute jaialdira joateko aukera.

Sarrerak astelehenean aurrera erosi ahalko dira. Astelehenean, hilak 20, 16:00etatik 19:00etara eta asteartean, hilak 21, 10:00etatik 15:00etara erosi ahalko dituzte sarrerak ATARIA-ren harpidedunek. Asteazkenean, harpidedun nahiz harpidedun ez direnek izango dute aukera, 16:00etatik 19:00etara. Sarrerak ATARIA-ren egoitzan egongo dira salgai (San Esteban auzoa, 20, Tolosa).

Atarikideek 15 euro ordaindu beharko dute sarrera bakoitza eta gehienez bi sarrera erosi ahalko dituzte prezio horretan. Bi sarrera baino gehiago erosi nahi izanez gero, bakoitzarengatik 17 euro ordaindu beharko dituzte. Atarikide ez direnek berriaz, 17 euro ordaindu beharko dute sarrera bakoitzarengatik. Sarrerak zenbakituak izango dira, eta ezingo da erreserbarik egin.

Abenduaren 22tik aurrera bertso jaialdirako sarrerak geratzen badira, beste ordutegi bat zehaztuko da horiek erosi ahal izateko.